

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Irekita dago euro-eskualdeak finantzatutako lankidetzako proiektuen laguntzak eskatzeko epea

*Nafarroako eragileek deialdi horretan parte har dezaketen lehen aldia da; 400.000 euro banatuko dira guztira, kulturarekin, hezkuntzarekin, gazteriarekin, kirolarekin eta eleaniztasunarekin lotutako lanetarako.*

Osteguna, 2017.eko martxoak 16

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euro-eskualdeak laguntzetarako aurtengo lehenengo [deialdia](#) egin du; 400.000 euro izango dira guztira, eta gutxienez Akitania Berriko bazkide bat eta EAEko edo Foru Komunitateko beste bat duten aktoreak dituzten eta kulturari, hezkuntzari, gazteriari, kirolari edo eleaniztasunari buruzko proiektuen aurrekontuaren % 50 diruz laguntzeko balioko dute.

Nafarroako eragileek eta erakundeek parte hartu ahal izango duten lehenengo deialdia da, pasa den martxoaren 6an Foru Komunitatea [euro-eskualdean sartzeko ekitaldia](#) egin zenetik Bordelen. Apirilaren 19ra arte dago eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza horiez gain, "ekonomiari, ikerkuntzari eta berrikuntzari" buruzko proiektuak finantzatzeko diru-laguntzen beste deialdi bat egingo du euro-eskualdeak 2017ko bigarren seihilekoan; 300.000 euroko aurrekontua izango du deialdi horrek.

### Lehentasunezko proiektuak

Deialdi honetako diru-laguntzak euro-eskualdearen 2014-2020 plan estrategikoan sartzen dira; plan horretan, herritarren, eleaniztasunaren eta mugikortasunaren esparruetan lankidetzako proiektuak garatzearen garrantzia nabarmentzen da, bai eta eskualde ezberdinetako aktore pribatu eta publikoen arteko lankidetzak sustatu eta dinamizatzeara ere.

Deialdiaren [oinarrien](#) arabera, lehentasunezko zatikako dira kulturazko proiektuak eta –zabalkundeari buruzko proiektuak, batez ere sortzaile gazteenak badira eta gazteei zuzendutakoak badira; hezkuntzari eta gazteriari buruzkoak, mugikortasuna eta ikastetxeen arteko elkartrukeak sustatzen dituztenak; elkarte-kirolari buruzkoak; eta Euro-eskualdeko lau hizkuntzen erabilera eta ezagutza bultzatzen duen eleaniztasunari buruzkoak.

Inola ere ez dira finantzatuko kirol federatuko lehiaketak, turismoari bakarrik lotutako helburuak dituzten jarduerak eta pertsona bakar baten proiektuak.

Apirilaren 19ra arte (15:00) dago lanak aurkezteko epea; horretarako, [galdetegi elektronikoa](#) bat bete behar da Euro-eskualdearen laneko hiru hizkuntzetako batean, eta horrekin batera, frantsesez eta

euskaraz edo gazteleraz idatzitako proiektuaren fitxa, eta bazkideen konpromisoa eta finantzazio-plana aurkeztu behar dira.